BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/12/14

# Batzar Nagusietako osokoak ez ditu onartu EH Bilduk, Podemosek eta Talde Popularrak Osotasunari aurkeztutako zuzenketa-eskeak

Bizkaiko Aurrekontuen proiektuak bere izapidetzeagaz jarraituko dau datorren astean batzordean, gaur, Gernikan egin dan Bizkaiko Batzar Nagusietako osokoak, aurrekontuak Aldundira itzultzea ez onartu ostean. Bozketa bakarrean, Bizkaiko Batzarrek ez ditue onartu EH Bilduk, Podemos Bizkaiak eta Bizkaiko Talde Popularrak (PP) osotasunari aurkeztutako zuzenketa-eskeak. Foru Gobernua eusten daben indar politikoen –Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak– baturea nahikoa izan da aurrekontuak itzultzea eskatzen eben hiru ekimenak atzera botateko, eta horreei Talde Mistoko ordezkari bakarra gehitu jake. Guztira, hiru talde horreek 31 boto batu ditue, eta EH Bilduk, Podemos Bizkaiak eta PPk, barriz, 20.

Holan, Lurraldeko Kontuek euren Batzarretako ibilbideagaz jarraituko dabe batzordean datorren astelehenetik, abenduaren 19tik, aurrera, batzarretako taldeek aurkeztu dituen 579 zuzenketa-eske partzialen eztabaideagaz. Aldundia eusten daben talde biek 11 zuzenketa-eske partzial defendiduko ditue. EH Bilduk gauza bera egingo dau bere 142 zuzenketa-eskeakaz; Podemos Bizkaiak 134gaz; Bizkaiko Talde Popularrak 196gaz; eta Talde Mistoak 97gaz.

"Zuzenketa" gehien jasoten dituen sailak Ekonomia eta Lurralde Garapen saila (97) eta Euskera eta Kultura saila (87) dira. Horreen ostean Iraunkortasun eta Ingurune Naturala (82), eta Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasuna (78) datoz. Bolumenari jagokonez, Herri Administrazio eta Erakunde Harreman saila (68), eta Gizarte Ekintza (57) hirugarren mailan dagoz. Eta, bukatzeko, zuzenketa-eske gitxien daukien kontuen artean, Ogasun eta Finantza sailari (37), eta Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio sailari (30) jagokezanak dagoz.

Aitatutako zuzenketa-eske horreez aparte, beste 21ek Foru Arau Proiektuaren artikuluen alderdiren bat aldatzea eskatzen dabe, eta 4k Udal Finantzaketearen alderdiren bat zalantzan jartzen dabe. Guztira, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatu jaunak adierazo dauenez 7.394 milioi eurokoak diran (horreetatik 1.165 milioi sailek erabili daikiez) 2017. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontuek, 2016ko aurrekontuetan aurkeztutakoek baino 248 zuzenketa-eske gehiago jaso ditue. Horreetatik ia ehun, Bizkaiko Batzarretan Talde Mistoa osatu dalako, Arturo Aldecoa, talde horretako ordezkari bakarra, martian Talde Popularretik kanporatua izan ostean.

Abenduaren 19tik, astelehenetik, 21era, eguaztenera, zuzenketa-eske partzialak Ekonomia eta Ogasuneko batzordean eztabaidatu ostean, Bizkaiko aurrekontuak behin betiko onesteko batzarretako izapidea hilebete honen bukaeran egingo dan azkeneko osokoagaz amaituko da. Bizkaiko Batzarrek abenduaren 27ko eguna aurreikusten dabe horretarako.

ZUZENKETA-ESKEEN EZTABAIDEA

Batzarretako taldeetako bozeroaleek atrilera igo orduko, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuak zabaldu dau saioa, aurrekontuen proiektuak, Unai Rementeria buru dan EAJ-PNV/PSE koalizino gobernuko taldeak prestau dauen bigarrenak, jarduera ekonomiko eta enplegu gehiago izango dauen Bizkairantz joateko aukerea emongo dauela azalduz, "munduagaz lotuago egongo dan", Lurralde "modernoagoa, eragingarriagoa eta gardenagoa" eta baita "lurraldearen ikuspegitik kohesinoatuago" egongo dan Bizkairantz, hain zuzen be.

Javier Ruiz PP taldeko batzarkideak, bere aldetik, bere taldeari Aurrekontu hori "ez jakola gustetan" salatu dau, baina Gobernu taldeari "eskua luzatzeko" prest agertu da, bere zuzenketa-eske partzialak onartzen baditu.

PP taldeko ordezkariak zalantzan jarri dau diru-sarreren aurreikuspena, bere eretxiz "puztuta dagozalako". Hori dala eta, bere ustez ez gagoz Kontu "sinesgarrien" aurrean. "Hormonauta" dagoz, esan dau.

Gastuari jagokonez, enplegua, gizarte politikak edo jarduera ekonomikoa bultzatzea moduko arloetan murrizketak jasoten dituala adierazo dau. Gizarte politiketan, adibidez, Aurrekontua "izoztuta" dago, "murrizketak" dagoz Eguneko Zentroetan, egoitzetan eta estimulazino goiztiarreko programetan.

"KALERA JATSIKO DIRAN" AURREKONTUAK

Asun Merinero Podemos taldeko batzarkideak, bere aldetik, Kontuak "kalera jatsi daitezala" eskatu dau, ez deutsielako erantzuten gizartearen "lehentasunei" eta "ez dituelako bermatzen" gizarteratzea eta pertsonei eskini beharreko zerbitzuen prestazinoa. "Ez deutsez behar dan moduan erantzuten gizarte arloko preminei, desbardintasunak gero eta handiagoak diran garai honeetan", gehitu dau.

Merinerok adierazo dauenez, Kontu horreek "ez dagoz" aberastasunaren banaketara edo gaur egungo ereduari "bueltea emotera" zuzenduta. "Funtsezko zerbitzuak kanpora atera izana" salatu ostean, bere taldeak Aurrekontu horri emongo deutson ezezkoa "konpromisozko eta ardurazko" ezezkoa dala esan dau, "jendea ongizatetik kanpo izten jarraitzea" saihesteko. Gainera, esan dauenez, Kontu horreetan ez dagoz doikuntzak, "murrizketak" baino, eta erreforma fiskala "preminazkoa" dala defendidu dau.

"GIZARTE ARLOKO MURRIZKETAK"

Arantza Urkaregi EH Bilduko batzarkideak, bere aldetik, Soziedadeen Zergan diru gehiago batzera zuzendutako tributuen aldaketea eskatu dau, beharginak garalako "diru-bilketaren pisu handiena geure gainean daukagunok".

Esan dau, zoritxarrez lurraldeko aspaldiko datu "txarrenak" doguzala Bizkaiko pobreziaren inguruko adierazleei jagokenez, eta "276.980 pertsona pobrezia arriskuan" dagozala. Horrez gain, Aldundiak gizarteratzerako laguntzetan, enplegu politiketan edo inklusinorako egoitzetako plazetan "murrizketak" egin dituala salatu dau. Urkaregik aurreratu dauenez, Aldundiak "ez dau beteko" Gizarte Zerbitzuen Karteraren hedapena.

EH Bilduk kritikau egin dau "zerbitzu publiko gehiago sortzeko" edo lantaldeak egonkortzeko dirurik ez egotea, eta"lehentasunak" ez dirala sustapen ekonomikoa eta enplegua esan dau, "lurraldearen garapena, hau da, azpiegiturak", baino.

Beste alde batetik, EAJ-PNV eta PSE taldeetan ez ebela akordioetara ailegetako ezelango borondaterik ikusi esan dau, Aurrekontuen inguruan izan eben bileran, eta EH Bilduk murrizketarik ez egotea, udal finantziazinoari ekitea eta erreforma fiskala planteau ebazala gogoratu dau. Azken gai horri jagokonez, EAJ-PNV taldeak, bere proposamenak zenbat gehiago eskatuko leuken koantifiketako eskatu deutso koalizino abertzaleari.

## EAJ-PNV, PSE-EE ETA TALDE MISTOA AURREKONTUEN ALDE

Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariak esan dauenez, aurkeztutako Aurrekontu proiektuak "gabeziak" ditu, baina "Bizkaiko beharretara egokitzeko daukan egitekoa nahiko ondo beteten dau". Bere esanetan "hobetu daitekez", baina ez dau uste kaxoian sartzeko besteko "negatiboak edo desegokiak" diranik. Hori dala eta, zuzenketa-eske partzialak azpimarratzearen eta "bat egiteko lekuak" bilatzearen aldeko apustua egin dau.

Carlos Totorika PSE-EEko bozeroaleak, bere aldetik, aurrekontu horrek gizarteari "erantzun argiak eta zuzenak" eskini gura deutsazala eta "azken urteetan Espainiako Gobernutik jasaten egon garan herritarren eskubideen eta askatasunen murrizketari aurre egingo deutson hormea" izatea bilatzen dauela adierazo dau.

Batzarkide sozialistak adierazo dauenez, PSE-EEk "inor botata ez iztearen", "aukera bardintasunaren alde" behar egitearen, eta "ekonomia berreskuratzeko eta enplegua sortzeko lanean buru belarri aritzearen" konpromisoa betetan dau. Totorikaren berbetan Aurrekontu "serioa, zorrotza, errealidadeagaz bat datorrena eta zalantzen aurrean aurreikuspenak dituana" da, eta Aldundia "mahai gainean jarrai behar dan guztia ari dala jarten" "bermetan" deutse herritarrei, "krisia gainditzeko bidean eragile aktiboa" izateko.

Gainera, azpimarratu dauenez, gastuari eustea beharrezkoa dan arren, ahalegin handia egin da "pertsonei arreta zuzena eskintzeko eta Ongizate Egoerea eusteko" politikakaz jarraitzeko.

Aurkeztu diran zuzenketa-eskeei jagokenez, "onartzeko inoiz baino aukera gitxiago izten dabela" uste dau, eta baliabideak "gitxiago diranean", beste batzuk "konponbideak bilatzen doguzan bitartean", zuzenketa-eskeak, azkenean, "zientzia fikzinozko ariketa moduan agertzen dirala" eta "ez bustiteko" eta "iges egiten ahalegintzeko" atxakia dirala gehitu dau.

## AURREKONTU "KOHERENTEAK, HELBURU ARGIAK DITUENAK"

Jon Andoni Atutxa EAJ-PNV taldeak Batzar Nagusietan dauen bozeroaleak, bere aldetik, Aurrekontu honeen "abiapuntua" pertsonak dirala esan dau. Zehatzago esanez, enplegua bultzatzeko ahalegina egiten dala azpimarratu dau, etorkizuna bermetako, jarduera ekonomikoan sakontzeko, pertsonengan "eragina" izan daian, eta "bizitza kalidadea hobetuko daben" zerbitzu publikoen aldeko apustua egiteko.

Atutxak adierazo dauenez, aurrekontu "koherenteak, helburu argiak dituenak" aurkezten dira, eta "beharrezkoa" dan gastuaren euspena, gizarte arloko gastuagaz "jarraitzeagaz" bateragarria dala erakusten dabe.

Gainera, "aurreikusten diran diru-sarrerei" erantzuten deutsen Aurrekontu "errealistea" dala esan dau. "Ez dogu gastauko ez daukaguna", esan dau. Atutxak adierazo dauenez, hori "erantzukizunez jokatzea da", eta sail bakotxak erabili daikean kopurua txikiagoa dan arren "gizarte arloko gastua blindau egiten dala" adierazo dau.

## ONARTU EZ DIRAN MOZINOAK

Aurrekontuaren eztabaidaren ostean, Batzarrak ohiko gai biren eztabaidea hasi dau. Holan, Bizkaiko Batzarrek ez ditue onartu kontroleko azkenengo osokoan landu ziran itaun bitik sortutako mozino bi.

Lehenengo, Koalizino abertzaleak, Podemos Bizkaiaren eta Talde mistoaren aldeko eretxiagaz, Aldundiak, gizarte-klausula barrien inguruko Foru Arau Proiektu bat egin eta Batzarretan aurkeztu daiala eskatu dau. EAJ-PNV eta PSE-EE horren kontra agertu dira, euren eretxiz "ez dalako formula egokia". Apirilean Eusko Legebiltzarrak onartu eban Legea "nahikoa" da gai horren inguruko esparru arautzaile moduan. Gainera, azken aldian egon diran hainbat epaik adierazoten dabenez, Aldundiak "araudi bat" egin beharko dau, Jon Sánchez jeltzaleak esan dauenez. Abstenidu egin dan PP taldeak esan dau egokia izango litzatekela Batzarretan ponentzia bat edo azterketarako batzorde bat eratzea.

Beste mozino batean, EH Bildu talde berak, eskaria egin dau, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egin deioen Foru Aldundiari, Karrantzako Minda kasuan zabalik dagon zigor prozeduran "akusazino partikular moduan" aurkeztu daiten. Oraingoan be, EAJ-PNV eta PSE-EE ekimenaren kontra agertu dira. Oposizinoa, Foru Aldundiari, Balmasedako epaitegi batean zabalik dagon kausan "modu aktiboan" esku hartzeko agindua emotearen alde agertu da, Bilboko epaitegi batean merkataritza prozesua bukatu eta epaiaren zain dagonean. Jeltzaleek eta sozialistek, orain aste bi Elena Unzueta bozeroaleak esandakoa gogoratu dabe. Bertan, Aldundia kausa horretan "parte aktiboa dala" esaten zan, porrot egin eban minda lantegian inbertidutako 2 milioi euroak berreskuratzeko asmoz.

## BATZARKIDE SOZIALISTA BARRIAK

Josu Montalbán eta Ekain Rico sozialistek batzarkide jarlekua hartu dabe gaur Gernikan, orain hamabost egun, kontroleko osokoan, Bizkaiko Batzarretan azkeneko aldiz parte hartu eben Alexia Castelo eta Joaquín Colmenero ordezkatuz. Montalbán batzarkidea lau legealditan izan da aurretik, bi hamarkada hartzen dituan baina etenaldiak izan ebazan epealdian, 1991tik 2011ra. Enkarterriko batzarkidea Batzarretako talde sozialistaren bozeroalea be izatera heldu zan.

NOTA DE PRENSA
14/12/2016

# El pleno de Juntas Generales rechaza las enmiendas a la Totalidad de EH Bildu, Podemos y grupo Popular

El proyecto de Presupuestos de Bizkaia continuará con su tramitación la semana próxima en comisión después de que, hoy, el pleno de las Juntas Generales de Bizkaia celebrado en Gernika, haya rechazado su devolución. En una votación única, la Cámara vizcaína ha desestimado las tres enmiendas a la Totalidad que habían sido presentadas por EH Bildu, Podemos Bizkaia y el grupo Popular Vizcaíno (PP). La suma de fuerzas de los grupos que sustentan al Gobierno foral –Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos-, ha sido determinante para tumbar las tres iniciativas de devolución, a lo que se ha sumado también el único representante del grupo Mixto. Han sido 31 votos en contra de las enmiendas, frente a los 20 apoderados de EH Bildu, Podemos Bizkaia y PP que pedían la devolución de las Cuentas.

De esta forma, las Cuentas del territorio proseguirán a partir del próximo lunes, 19 de diciembre, en comisión su recorrido parlamentario con el debate de las 579 enmiendas parciales presentadas por los grupos junteros. Las dos formaciones que apoyan a la Diputación defenderán un total de 11 enmiendas en las sesiones de la Comisión de Economía y Hacienda. EH Bildu hará lo propio con sus 142 enmiendas; Podemos Bizkaia, con 134; el grupo Popular Vizcaíno, con 196; y el Mixto, con 97.

Los departamentos que más "retoques" recogen son Desarrollo Económico y Territorial (97) y Euskera y Cultura (87). Le siguen Sostenibilidad y Medio Natural (82), y Empleo, Inclusión Social e Igualdad (78). Por volumen, en un tercer escalafón se agrupan las áreas de Administración Pública y Relaciones Institucionales (68), y Acción Social (57). Y, por último, entre las cuentas con menos solicitudes de modificación se encuentran las referidas a los departamentos de Hacienda y Finanzas (37), y Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio (30).Aparte de estas enmiendas, otras 21 iniciativas proponen modificar algún aspecto del Texto Articulado del Proyecto de Norma Foral y 4 cuestionan algún aspecto de la Financiación Municipal.

En total, las Cuentas del territorio de 2017, cifradas por el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, al inicio del pleno en 7.394 millones de euros, de los que 1.165,5 millones corresponden al disponible departamental, acumulan 248 enmiendas más que las que se presentaron para corregir los presupuestos de 2016. Casi un centenar se explica por la irrupción en la Cámara vizcaína del grupo Mixto después de que Arturo Aldecoa, su único representante, fuera expulsado del grupo popular en el mes de marzo.

Tras el debate de las enmiendas parciales en la comisión de Economía y Hacienda entre el lunes 19 y el miércoles 21 de diciembre, el trámite parlamentario para aprobar de

manera definitiva los presupuestos de Bizkaia finalizará con un último pleno a finales de mes. La Cámara vizcaína baraja la fecha del 27 de diciembre.

Antes de que subieran al atril los portavoces de los grupos junteros, el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha abierto el debate explicando que el proyecto de presupuestos, el segundo del equipo de gobierno de coalición PNV-PSE que preside Unai Rementeria, permitirán caminar hacia una Bizkaia con más actividad económica y empleo, "más conectada al mundo", un Territorio "más moderno, eficiente y transparente" y también más "cohesionado territorialmente".

## TRES ENMIENDAS DE TOTALIDAD

El juntero del PP Javier Ruiz, ha arrancado el turno de defensa de las tres enmiendas de Totalidad presentadas por la oposición y ha denunciado que, a su formación, este Presupuesto "no le gusta", aunque se ha mostrado dispuesto a "tender la mano" al equipo de Gobierno, si está dispuesto a incorporar sus enmiendas parciales.

El representante del PP ha puesto en duda la previsión de ingresos y cree que se "inflan", por lo que no cree que se esté ante unas Cuentas "creíbles". Están "hormonadas", ha dicho.

En relación al gasto, ha afirmado que incluye recortes en ámbitos como el empleo, las políticas sociales o en el impulso a la actividad económica. Por ejemplo, en políticas sociales el Presupuesto está “congelado” con “recortes” en Centros de Día, residencias y programas de estimulación temprana.

## PRESUPUESTOS QUE “BAJEN A LAS CALLES”

Por su parte, la apoderada de Podemos Asun Merinero ha pedido que las Cuentas "bajen a las calles" porque no responden a las "prioridades" de la sociedad y "no garantizan" la inclusión y la prestación de servicios a las personas. "No atiende suficiente y eficientemente las urgencias sociales en tiempos en los que crecen las desigualdades", ha añadido.

Merinero ha manifestado que estas Cuentas "no sirven" al reparto de la riqueza o a dar un "giro" al actual modelo. Tras denunciar la "externalización de servicios esenciales", ha asegurado que la negativa de su grupo a este Presupuesto es un no "comprometido y responsable" para evitar que "continuemos abandonando a la gente a las afueras del bienestar". Asimismo, ha señalado que en estas Cuentas no hay ajustes sino "recortes" y ha defendido que es "urgente" una reforma fiscal.

## “RECORTES SOCIALES”

Por su parte, la juntera de EH Bildu Arantza Urkaregi ha pedido también un cambio tributario encaminado a que se recaude más en el Impuesto de Sociedades, ya que los trabajadores "soportamos el mayor peso de la recaudación" a través del IRPF y del IVA.

Ha lamentado los "peores" datos territoriales en cuanto a indicadores de pobreza en Bizkaia, advirtiendo que existen "276.980 personas en riesgo de pobreza", así como el hecho de que la Diputación "recorte" en ayudas a la inserción, políticas de empleo o plazas residenciales para la inclusión. Urkaregi ha vaticinado, además, que la Diputación "no cumplirá" con el despliegue de la Cartera de Servicios Sociales.

EH Bildu ha criticado que no haya dinero para "crear nuevos servicios públicos" o estabilizar plantillas y ha asegurado que ni la promoción económica ni el empleo son las "prioridades", sino el "desarrollo territorial, es decir, las infraestructuras".

Por otra parte, Urkaregi ha afirmado que no apreciaron por parte de PNV y PSE voluntad de llegar a acuerdos en la reunión que mantuvieron sobre los Presupuestos y ha recordado que EH Bildu planteó que no incluyeran recortes, abordar la financiación municipal y una reforma fiscal, sobre la que el PNV, le ha pedido que cuantifique cuánto supondría de más su propuesta.

APOYOS A LOS PRESUPUESTOS DE PNV, PSE-EE Y GRUPO MIXTO

La oposición no ha convencido al resto de grupos junteros. El representante del Mixto, Arturo Aldecoa, ha afirmado que el proyecto de Presupuestos presentado tiene "carencias" pero "cumple suficientemente con la adecuación a las necesidades de Bizkaia". Ha señalado que "se pueden mejorar", pero no considera que contengan algo "tan negativo o inadecuado" como para meterlos en el cajón. Por ello, ha apostado por incidir en las enmiendas parciales y buscar "terrenos de encuentro".

Por su parte, el portavoz del PSE-EE, Carlos Totorika, ha indicado que este presupuesto pretende ofrecer "respuestas claras y directas" a la sociedad y ser un "dique de contención frente a la estrategia política de erosión de los servicios públicos y quiebra y recorte de los derechos y libertades de la ciudadanía que hemos venido soportando los últimos años desde el Gobierno de España".

El apoderado socialista ha indicado que el PSE-EE cumple el compromiso de "no dejar tirado a nadie", trabajar "por la igualdad de oportunidades" y "volcarse en la recuperación económica y la generación de empleo". Según Totorika es un Presupuesto "serio, riguroso, ajustado a la realidad y previsor ante las incertidumbres", que ofrece "garantías" a la ciudadanía de que la Diputación está "poniendo todo la carne en el asador" para ser "un agente activo en la superación de la crisis".

Además, ha destacado que, pese a la necesidad de contención de gasto, se ha hecho el esfuerzo por mantener las políticas para "la atención directa a las personas y el mantenimiento del Estado de Bienestar".

Ante las enmiendas presentadas cree que son "menos asumibles que nunca" y ha añadido que cuando los recursos "son menores", las enmiendas "acaban revelándose más como un ejercicio de ciencia ficción" y son una "excusa para no mojarse" y para "intentar huir", mientras "otros buscamos soluciones".

PRESUPUESTOS “COHERENTES Y CON OBJETIVOS CLAROS”

Por su parte, el portavoz del PNV en Juntas, Jon Andoni Atutxa, ha afirmado que las personas son el "punto de partida" de estos Presupuestos. En concreto, ha destacado que se busca impulsar el empleo para garantizar su futuro, incidir en la actividad económica para que "revierta" en las personas, y apostar por unos servicios públicos para "mejorar la calidad de vida".

Atutxa ha indicado que se presentan unos presupuestos "coherentes y con objetivos claros" y ha añadido que la "necesaria" contención del gasto puede combinarse con el "mantenimiento" del gasto social.

Asimismo, ha apuntado que es un Presupuesto "realista" que responde a "los ingresos" que esperan disponer". "No vamos a gastar lo que no tenemos", ha señalado. Atutxa ha indicado que ello es "actuar con responsabilidad" y ha señalado que baja el disponible departamental pero "se blinda el gasto social".

MOCIONES RECHAZADAS

Tras el debate presupuestario, la Cámara ha iniciado el debate de dos asuntos ordinarios. Así, el Parlamento de Bizkaia ha rechazado las dos mociones presentadas que traía EH Bildu, nacidas de interpelaciones del último pleno de control.

En primer lugar, la coalición abertzale, con el apoyo de Podemos Bizkaia y grupo Mixto, se ha mostrado partidaria de que la Diputación elabore y presente en Juntas Generales un Proyecto de Norma Foral sobre las nuevas cláusulas sociales en la contratación pública, a lo que se han negado PNV y PSE-EE por entender que “no es la fórmula adecuada”. Es “suficiente” la Ley aprobada en abril por el Parlamento Vasco como marco regulatorio, han apuntado.

Recientes sentencias judiciales determinan que la Diputación deberá de elaborar “un reglamento”, según ha apostillado el jeltzale Jon Sánchez. El PP, que se ha abstenido, ha apostado por crear “una ponencia o una comisión de estudio” en las Juntas.

En otra moción, EH Bildu buscaba apoyo suficiente para instar a la Diputación a personarse "como acusación particular" en el procedimiento penal abierto por el caso Karrantzako Minda. La iniciativa han sido rechazada también por PNV y PSE-EE. La oposición ha votado a favor de que se inste a la Institución foral a intervenir "activamente" en la causa que se dirime en un juzgado de Balmaseda, después de que el proceso mercantil haya concluido, a la espera de sentencia, en Bilbao. Jeltzales y socialistas han recordado las palabras de hace dos semanas de la portavoz Elena Unzueta en las que sostenía que la Diputación "sí está personada" en esta causa con la intención de recuperar los 2 millones de euros invertidos en la fallida planta de purines.

NUEVOS APODERADOS SOCIALISTAS

Al inicio del pleno, los socialistas Josu Montalbán y Ekain Rico han tomado hoy, de manera oficial, asiento de apoderado en Gernika en sustitución de Alexia Castelo y Joaquín Colmenero que intervinieron en la Cámara vizcaína por última vez hace quince días en el pleno de control. Montalbán ya fue juntero en cuatro mandatos diferentes en un periodo intermitente que abarca dos décadas, entre los años 1991 y 2011. El juntero por Encartaciones llegó a alcanzar el puesto de portavoz del grupo juntero socialista.